

BALDIN

BADA

Shakti Olaizola

2º SARIA
CIRCADA
OFF CIRCADA UNIA 2017



Konpainia Cia. Shakti Olaizola
Publikoa Publiko guztientzat
Iraupena 45'

+34 619379311
www.shaktiolaizola.com



SINOPSISIA

Gertutik ikusiko ditugu margolari eta musikari baten erokeri eta zentzugabekeriak. Haientzat dena da posible bere munduan eta bere errealitate zentzugabea eraikitzen dute gehien gustatzen zaien bezala. “Baldin Bada”, eta gu nahi dugun bezala posible “Baldin Bada”? Zergaitik ez eman gure buruari gure errealitatea nola margotzeko erabakitze aukera. Oinekin margotu, ezinezko orekak egin eta oso jarrera arraroetan abestu bezalako trebetasunak egiten dituzten bitartean erakutsiko digute azken finean brotxa gure esku dagoela eta gehien gustatzen zaigun errealitatea margotu dezakegula. Guztiok dugu inguratuko gaituen koloreak erabakitze eskubidea.

Aho zabalik utziko zaituen zirku, antzerki, musika eta pintura konbinazioa. Kontorsioa, akrobazia, dantza eta antzerkia bi pertsonai samur hauen bihurrikeriak eta abenturak kontatzeko.





KONPAINIA

Proiektu ezberdinetan partu hartu ondoren, 2012. urtean Shakti Olaizolak bere bakarkako proiektuarekin hasten da eta “Irakurtzen” deitzen den ikuskizun motza sortzen du. “Pyrénées de Cirque” proiektuko “Chemin Emergents 2011-2012”-etan autatua izan zen.

2013. urtean “Irakurriz” sorkuntzarekin hasi zen eta Pyrénées de Cirque proiektuaren beka bat jaso zuen Lucio Baglivo-rekin egonaldi bat egiteko La Grainerie-n, Toulousen. Leioako 2014ko Umore Azoka Kaleko Artisten Azokan estrenatu zen eta Espaina, Europa eta Latinoamerikako hainbat jaialdietan ibili da.

2016an bere azkeneko sorkuntza hasi zuen, “Baldin Bada”, Joseba Negro musikariarekin. Leioako 2017ko Kaleko Artisten Umore Azokan estrenatu zen. Estatuko hainbat jaialdietan ibili da jadanik eta bigarren saria irabazi zuen Sevillako Circada Jaialdian.



SHAKTI OLAIZOLA

1987ko irailan jaio zen, Gipuzkoan. Txikia zenetik beti izan du margotzeko, marrazteko, moldatzeko eta baita dantzatzeko zaletasun handia.

Arte Ederretan lizentziatu zen eta ikastetak egiten ari zenean zirkua aurkitu zuen. Honek bira bat eman zion bere sormenari eta gorputza erreminta berri eta interesgarri bat bezala eskaini zion. Kontorsioa aurkitu zuen Ane Miren-ekin, hontan espezializatu zen eta honek animatuko zion zirkua bere ogibidea izatera erabakitzerara. Dantza, klown eta porte akrobatikoetan prestatu da baita ere Bilbo, Madrid, Barcelona, Buenos Aires (Argentina) eta Bruselaseko "Espace Catastrophe"-n.

Disparate konpainiaren parte izan zen eta Neska Kabaret eta Zirkun Zirko proiektuetan parte hartu du Euskal Herrian ere bai. 2012an bere bakarkako proiektua hasi zuen eta 2014an bere lehen ikuskizuna estrenatu zuen.

JOSEBA NEGRO

Bilbon jaio zen 1983. urtean. Musikarien familia batetik etorrira, laster hasten da pianoan eta kantuan interesatzen.

Pianoa, Hammond organoa eta akordeoi diatonikoaren interpretatzailea da, baita konpositore eta moldatzailea ere. Pianoa eta solfeo klasikoa ikasten du BilbaoMusika eskolan eta jazz pianoa Geronimo Martín, Josu Muñoa, Juan Ortiz, Arantzazu Saiz eta Mikel Gaztelurrutia irakasleekin. Autodidakta da estilo tradizional eta modernoetan: folk, blues, jazz, soul, ska, reggae, funk, etab.

5 urtetan zehar Akatz eta Potato taldeetako teklista izan da. Priscilla Band funk taldearen sortzaileetariko bat da. Akordeoilari bezala Folk&Fire eta Bufo Kalamita-n ibili da kale ikuskizunak eta kontzertu didaktikoak eskaintzen.

Irakaskuntza mailan, Igorreko Astrapalea Musika Eskolako kudeaketaz arduratzen da. Han piano eta akordeoi diatonikoko irakaslea da baita ere. 2004. urtetik piano eta akordeoi diatonikoko klaseak ematen ditu Euskal Herriko beste hainbat eskolatan.





FITXA TEKNIKOA

Mota: Zirku-antzerkia

Publikoa: Publiko guztientzat

Hizkuntza: Testu gabekoa

Iraupena: 45 minutu

Formatoa: Kale antzerkia

Muntaia denbora: 3 ordu 30 minutu


Desmuntaia denbora: 1 ordu 30 minutu

Beharrezkotasun teknikoak:

- Eszenatoki espazioa: 9 x 9 m
- Altuera minimoa: 4 m
- Zorua: Erregularra eta malda gabekoa
- Korrante elektrikoa
- Ibilgailuentzat sarbidea
- Aldagela/wc



ESZENOGRAFIAREN MARRAZKIA





FITXA ARTISTIKOA

Idea originala	Shakti Olaizola
Zuzendaritza	Jimena Cavaletti
Antzezleak	Shakti Olaizola, Joseba Negro
Koreografia	Maximiliano Sanford
Ekoizpena	Shakti Olaizola
Laguntzaile	Eusko Jauraritza, Kultur Leioa, Bilboko Udalaren Kultur Saila, L'Estruch Fàbrica de creació, Karola Zirko Espazio
Eszenografia	Atx Teatroa, Shakti Olaizola
Jantziak	Azegiñe Urigoitia
Argazkilaritza	Barbara Govan, Naia Muñoz Murua
Bideoa	Ivan Izagirre
Diseinu grafikoa	Shakti Olaizola



KONTAKTUA

+34 619379311

info@shaktiolaizola.com

www.shaktiolaizola.com

Banaketa:

+34 657712844

distribution@shaktiolaizola.com



Hemengo
bazkide:



artekale
Guztiz Berria, Kala, Irizkiak, Elkartasun
Asociación de Artes del Libro en País Vasco

Laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SARIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO
FABRICA DE HEZKUNTZA SABA
AREA DE CULTURA Y EDUCACION



L'OSTRUCH

FÁBRICA DE CREACIÓN DE LES ARTS EN VIN

Ajuntament de Sabadell



URSAN
LA FÁBRICA
DE PINTURAS



www.shaktiolaizola.com